

## Antxiñako fotografixak

### Antonino Ibarrendoren mendeurrena

**A**urten, bagillaren hamalauan, beteko dira ehun urte **Antonino Ibarrendo Oleaga** (1914-1985) jaixo zala. Hori dala eta, ospakizun eta ekintza batzuk antolatuko dira urtian zihar gure herriko musika-bandiarekin hain lotura haundia eta estua euki eben musiko bikain honen omenez. Egia esan, XX. gizaldia benetan aberatsa izan geben Oñatin musika-saillari dagokionian: Antonino ez ezik, garai horretakoak ditugu, hildakuek bakarrik gogoraketiarren, **Patxi Madina**, **Joxe Azpiazu**, **Julian Zelaia** eta **Joxe Mari Arzuaga** be.

Antoninok, musikari profesionala izan barik, urte askuan ikaragarritzko lana egin eben arlo horretan Oñatin. Ez **banda-zuzendari** moduan bakarrik, **konposaitzaille eta musika-maixu** lez be bai. Gerra osteko hainbat jeneraziñok ikasi eben Ibarrendorekin solfeua edota instrumenturen bat jotzen Santa Marinako eskoletako txaranga. Eta txantxikuarron musika-paisajian betiko erantsita geratu xakun **kontziertu-pieza, doiñu eta kalejira ugari berak sortutakoak dira**. Gaur egun be sarritan entzuten ditudunak.



Oñatin, 1970eko hamarkadiaren hasieran herriko musika-bandia desegin zanian, A. Ibarrendok Bizkai aldera jo bihar izan eben: lehenengo **Sestaora**, oposiziñuak irabazita, **hango udal bandiaren arduria hartzeko**; eta urte batzuk geruago, hemen be oposiziñuen bidez, **Bilboko musika-banda ospetsuaren zuzendari-kargura**, jubilaue zan arte. Batian nahiz bestian oso estimaua izan zan Antonino.

**Ibarrendotarrak musika-saga luzia** gauzatu daue Oñatin eta hemendik kanpora. Dan-danak ezin ditudugu orain aittatu, baiña hara batzuk: **Felix Ibarrendo** plazako arkupeetako zapatarixak, Antoninoren aittak, herriko hainbat bandatan jardun eben; Antoninoren seme zaharrenak, **Iñaxio Ibarrendo Ugartek**, aittaren tradiziñuari jarraitu xao eta herriko bandiaren zuzendarixa da azkenengo hogeita hamar eta piku urte honeittan; eta **Felix Ibarrendo Ugarte** hurrengo semia eta frantziskotarra, iragoko berrogei eta bost urtietan Parisen dabil lehenengo illaran bandardiako musika klasikuaren saillian.

Ezkerreko fotografixan **hiru musiko-belaunaldi** agiri dira: Felix aittajauna, Antonino semia eta Iñaxio billobia 1940ko hamarkadan. Eskumakua, berriz, Ibarrendori 1985eko maiatzaian Oñatin egin xakon omenaldikua da: **Pedro Iraola Txapak** bandiaren izenian orogarrixa emuten Antoninori, honen andria, **Fran Ugarte**, atzian dala. Handik bi hillabetera hil zan Antonino 71 urterekin.

J. E.

Fotografixak Iñaxio Ibarrendok itzittakuek dira. Omenaldikua Plazaolak ataratakua da. Argibide gehixenak be Iñaxiok samurtu dosku. Milla esker!

**Oharra:** Orain hurrengo zenbakixan kaleratu geben sail honetako orrixan etxe berezi batekin ahaztu giñala esan dosku batek baiño gehixagok. Bueno, ahaztu-ahaztu ezkiñan egin, baiña, biharbada, **Gomendio-enea** moduan agertutako Altxibar aldeko etxia gerra ostian **Onraitena** izenarekin ezaguketan gebela adieraztia komeni zan.